

Erf.: Udal azokako postu hutsen esleipena
Tx. zk.: 15/

Karmele Muñoa Arrigain andereak, Bermeoko Udaleko Behin-behineko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

TXOSTENA

Planteatutako gaia

Bermeoko udal azokako postu hutsen esleipena.

Nork eskatu dauen txostena

Ofizioz.

Argudio juridikoak

a) Aurrekariak

Lehenengoa: 2015eko irailaren 2an, Udal Osoko bilkureak, udal azokako postu librean enkaten bidez esleitzeko oinarriak onartzea erabagi eban.

Bigarrena: Deialdiaren iragarkia 2015eko irailaren 16ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan.

Hirugarrena: Eskaintzak aurkezteko epean, proposamen bakarra jaso zan.

b) Oinarriak

Lehenengoa: Kontratazino mahaiak aurkeztutako proposamen bakarra aztertu ondoren, baldintzak betetzen ebezala egiaztatuta, 9. eta 10. moduluak eskaintzaile bakarrari esleitzeko proposamena egitea onetsi eban.

Bigarrena: Sektore Publikoko Kontratuen Legea onartzen dauan 3/2011 EDLaren 2. Xedapen gehigarrian eta Toki Entitateen ondasunen Erregelamendua onartzen dauan 1372/1986 EDko 78. Artikuluaren arabera, esleipena egitea Osoko Bilkureari jagoko, emakidaren iraupena 4 urte baino gehiagokoa dalako.

Hirugarrena: Bestalde, behin enkantearen prozedura amaituta eta postuak esleituta, hutsik dagozan postuak zuzenean esleitu leikez enkante bidez kaleratutako baldintza berberatan.

Baina aurreko atalean adierazoten dan moduan, esleipen hori egiteko ahalmena Osoko bilkureari jagoko eskumena delegatzen ez badau.

Hori horrela, izapidetzeak arintzeko, eskumena delegatzea komenigarri ikusten da, kontutan eukita eskatzaileak baldintza guztiak betetzen badauz, esleipena izapide hutsezko tramitea dala.

Hori guztia dala eta, honakoa proposatzen da:

LEHENENGOA: Udal azokako 9. eta 10. modulua Lara Erausquin Andres andreari esleitzea 300 eurotan modulo bakoitza. Danatara: 600 euro.

BIGARRENA: Hutsik dagozan postuak zuzenean esleitzeko eskumena Tokiko Gobernu batzarrarengan delegatzea.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2015eko azaroaren 12an

Karmele Muñoa Arrigain
Behin-behineko Idazkaria